ASTEKARIA - 2011ko ekainaren 3an - XV. urtea - Usurbil, 451. zenbakia

TOKIKOM

www.noaua.com

# Noaua!!



Itoitz Rodriguez, 1.000 metrotan Euskadiko txapeldun




"Baginaren bakarrizketak" eta kultur ekitaldi gehiago,

# Ikastolaren Egunaren bueltan


USURBIL
O P T I K A
·Audifono pertsonalizatuak.
·Uretako tapoiak.
·Eguzkitako betaurrekotan beherapenak.
50€-ko
BALEA
BETAURREKO PROGRESIBOETAN (HOYA)
Zubiaurrenea 10 USURBIL
✆ 943 370 269 eta 675 708 654


Marije
Arropa denda
Denboraldi berria!
Etxebeste,3 - 943 36 11 06 - USURBIL


Zuen publizitatea hemen
✆ 943 360 321
publizitatea@noaua.com


Rafa
iturgindegia
· Kristaldegiko lanak
· Kristalezko mahaiak
· Segurtasun beirak
· Kristalezko luzeroak
· Klimalit
astegunetan: 10:30 -13:30 eta 16:30 -19:30
larunbatetan: 10:00 - 13:00
Bordaberri kalea 1, 1 behea • ✆ 943 36 80 04

Albistea iruditan

# Andatzakoak, Bardeetan barrena

Andatza Mendizale Elkarteko kideak Bardeetan izan ziren pasa den igandean. Argazki hau eta kronikatxo bat bidali digute: “Partaide gehienentzat toki ezezaguna zen eta Bardeak ezagutzeko aukera izan zuten igandean. Piskerra mendiari bira eman eta gailurra egin genuen. *Labirintoa* eta *Oreinen pasabidea* deituriko igarobide bitxiak liluratu egin gintuen. Valtierrako "Los Abetos" jatetxean bapo bazkaldu ondoren, bizileku izandako kobak bisitatu genituen etxerako bidea hartu aurretik”.

Argazkian, Bardeetara joan ziren 41 mendizaleak.



Askorentzat, lehen aldia izan zen bardeetan.

## Telefono interesgarriak

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Udala | 943 371 951 | Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 | DYA | 943 464 622 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 | Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 | Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 | Etumeta AEK Euskaltegia | 943 372 001 | Emergentziak | 112 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 | Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 | Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 | Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 | Gipuzkoa Donostia Kutxa | 943 361 202 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 | Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 | Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 | Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 | Banco Guipuzcoano | 943 370 006 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 | Taxia (Angel) | 607 928 770 | Banco Popular Español | 943 370 411 |
| Haur Eskola | 943 374 061 | Taxia (Joxe Kruz) | 677 373 466 | BBVA | 943 377 155 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 | Eusko Tren | 943 470 976 | Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 | Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 | Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 | Anbulategia | 943 362 013 | Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| KZgunea | 943 570 999 | Oa botika | 943 376 076 | Telefonica | 1004 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 | Iturralde botika | 943 363 395 | Euskaltel | 900 840 840 |

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Alaitz Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!!
EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



JOXE PIÑAS

# Umorea eta haserrea

Kazetari bat hirurogei eta hamar urteko gizon bat elkarrizketatzen ari da kalean. Gizonak horrela dio:

"Erbesteratutakoen semea naiz. Hogeitazazpi urte eduki arte eta trantsizioa baino pixka bat lehenago arte, Franco zegoela eta, ezin izan nuen Espainiara itzuli. Nire aita gizajoa non lurperatu ez genekien ere. Nire amak urte asko eman zuen gurpil-aulki batean. Orain 70 urte dauzkat. Duela hilabete batzuk birika baten %30a kendu zidaten.

Nire emaztea etorkina da. Hiru seme-alaba dauzkat, hauetatik bakarrik batek egiten du lan, erdikoak... baina ez du ezer kobratzen. Denok, bilobak barne, nire pentsiotik bizi gara. Zaharrena orain dela gutxi banandu egin zen, bere senarrak drogak eta alkoholarekin arazoak zeuzkan eta beraien bi seme-alabak nire alabaren karguan gelditu dira.

Nire seme txikiena oraindik ez da etxetik joan eta bananduta zegoen emakume batekin ezkondu da eta gurekin bizitzera ekarri du. Emakume horrek lehen lan egiten zuen, lanpostu on bat zeukan, baina etxera etorri denetik ez du ezer egiten. Orain bi alaba dauzkate eta gure etxean bizi dira ere bai...".

Kazetariak harrituta esaten dio: "Errege jauna, ez dut uste zure egoera hain txarra denik".

Goian irakurri duzuena txistea bada ere, errealitateari ez dio uko egiten. Espainiako gerra zibilaren galtzaileek pairatu zituzten ondorioak aparte utzita (erbestea, zapalkuntza edota diru estuasunak), gaur egungo familia askoren bizi ezaugarriak aipatzen dira ere bai: pentsio eskas baten menpekotasuna, langabezia, etxebizitzaren falta, etorkinen zailtasunak, etorkizunerako itxaropen falta, familia desegituratuak, ezbeharrei aurre egiteko estuasunak (gaixotasunei, droga menpekotasunari,...).

Beste aldetik, pribilegiatu klase bat aipatzen du ere bai: kasu honetan monarkia, baina multzo berdinean bankariak, sasi-politiko ustelak eta enpresari batzuk sar genezakeen.

Maiatzak 15 Mugimenduaren sorrerak adierazi duenez, krisi sakon honetan, umoreak ez du haserrea ezeztatzen. Akaso askok mugimendu hau arrazoiaz beterik dagoela, baina desegituratuta dagoela eta momentuko haserrea islatzen besterik ez duenez jarraipenik ez duela izango pentsatuko dute, intentzio oneko pertsonetaz osatutakoa baina inozoak direla,... Zenbat aldiz pertsona jakin batzuengan entzun behar izan ditugu horrelako aitzakiak beraien burua zuritzeko? Zenbat aldiz kritikatu diote egiten dutenei beraien ekintzaeza justifikatzeko? Alegia, beraiek ezer ez egiten jarraitzeko?

Beste txiste batek (El Roto) haserrearen eta ilusioaren arrazoiak ondo azaltzen ditu, bi agintari politikoen arteko elkarrizketa da:

-Matxinatuek plazatik ez doazela diote.
-Joaten ez badira, orduan lana galduko dutela esaiezu.
-Ezin da, ez dute lanik.
-Ba dirulaguntzak kenduko dizkiegula.
-Ez dute dirulaguntzarik.
-Ba beraien etxeak kenduko dizkiegula.
-Ez dute etxerik.
-Orduan... galduta gaude!

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - **Joxe Piñas** - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika

# Itxaropena

Errauste planta inposatu nahi digutenak, hauteskundeak Atez Atekoaren galdeketaren bigarren buelta bezala erabiltzen saiatu dira. Herritarrok, berriz ere garbi esan dugu ez dugula zaborra gustoko. Atez Atekoa zabaldu eta Zero Zabor bidean urratsak egiten jarraitzea da gehiengoaren hautua. Atez Atekoaren alde egin zuten alderdiek gora egin dute emaitzetan. Kontra egiten aritu direnak berriz, beste behin ere galtzaile izan dira. Usurbilen bezala, Gipuzkoako herri gehienetan errausketaren aurrean Zero Zabor eredua hobesten duten gehiengoak lortu dira.

Duela lau urte, gaur egungo baldintzetan egotea ametsa besterik ez zen. Atez Atekoa hobetzen segi behar dugu, berrerabilpena eta murrizketa sustatzeko programak abian jarri eta beste herrietara zabaldu. Hori egiten badugu errauste planta gosez hilko dugu. Bideraezina egingo dugu. Eraiki baino lehen baldin bada hobe. Hala ere, saiatuko dira geldiezina dela sinetsi arazten. Guk gure ereduarekin aurrera segitu behar dugu egiten dutena egiten dutela. Eraikitzen badute ere hortxe geratuko da errausteгia. Lemoizen gertatu zen bezala. Beharrezkoa bada eraikina birziklatuko dugu, baina ez diegu utziko hondakinak pozoi bihur ditzaten. Ez diegu utziko gu eta gure seme alabak pozointzen.

Atez Atekoa zenbat eta herri gehiagotara zabaldu orduan eta jaki gutxiago edukiko du errauste plantak. Horrekin batera, geroz eta jende gehiagok ikusiko du hondakinak era arrazional batean kudeatzea posible dela. Are eta zailagoa izango zaie beraien oinarri sozialari errausketa ezinbestean onartu beharreko gaitza dela saltzea. Eztabaida dagokion eremura, herrialde osora, zabalduko dugu.

Errauste plantaren mehatxua gainditzea behatz puntekin ukitu dezakegun helburua da. Horregatik dei egiten diogu herritar orori aurerra begira egin daitezkeen ekimenetan parte har dezaten. Besteak beste, aire garbia eskatzen duen haize errota etxeko balkoi eta leihoetan jartzeko deia egiten dugu, herritarron nahia zein den argi eta garbi ikus dezaten agintariek.

**Usurbil Zero Zabor**

# Zubietako gidari berriak

## Hauteskunde egunean, Herri Batzarreko alkateak ere hautatu zituzten

**Udal eta foru hauteskundeekin batera, Herri Batzarrerako hautagaia aukeratu beharra zuten zubietarrek joan den maiatzaren 22an. Usurbil aldeko eta Donostia aldeko hautagai bana hautatu behar zuten boto emaileek, hauetako bakoitza bi urtez izango baita Zubietako Herri Batzarreko burua.**

Arautegi Organikoaren eranskinaren arabera, 4. artikuluan zehazten da lehen hautaketa Donostiako Udalari dagokiola, beraz, lehenengo alkatea eta bi urtez, Zubieta-Donostiakoa izango litzateke. Eta bigarrena, Zubieta-Usurbilgoa, beste bi urtez. Emaitzak honakoak izan dira. Datozen lau urtetan, Fernando Iturralde eta Alazne Olaizola izango dira Zubietako Herri Batzarreko alkateak.

### Zubieta-Usurbil

Agirre Alzugarai, Unai: 62 boto.
Aroztegi Agirretxe, Jose Luis: 28.
Olaizola Iparragirre, Alazne: 69.

### Zubieta-Donostia

Munduate Artola, Mikel: 94 boto.
Iturralde Zabala, Fernando: 101.



ZUBIETAKO ORDEZKARIAK ERE HAUTATU ZITUZTEN MAIATZAREN 22AN.

Ika-mika!!

# Usurbil Cup 2011: Gutun irekia guraso eta entrenatzaileei

Aurreko urtetan bezala iritsi da Usurbil Cup-ekin gozatzeko garaia. Pozgarria izaten baita hainbeste haur ilusioz, gogoz eta pasioz frontoian lehiatzen ikustea.

Guraso, lagun eta entrenatzaileak parte hartzera animatu nahi ditugu, baina asmoek, ilusio faltsuek ez ditzatela zapuztu lehiaketa honek sortzen dituen eragin onak (talde lana, herrigintza eta garapen pertsonala), pozak eta neurri gabeko irrifarrak! Kanpotik esaten dugunarekin, geure jokabideekin eta hartutako erabakiekin asko eragiten baitugu jokalari gazte horiengan. Hots, eragina ona eta hezitzailea lortzeko gurasoek eta entrenatzaileek animoak eta babesa izan beharko dituzue ardatz… exigentziak, bronkak, ez-zelairatzeak alde batera utzita. Futbola berez dituen baloreak azpimarratuz, eta hain interesgarriak ez diren gehiegizko konpetibitatea eta harrokeria alboratuz.

Gaur egun, jakina da,txapelketa honek lehen baino arazo gehiago sortzen dizkigula zenbait kasuetan. Lehen Futbolaren inguruan zeuden ereduak apalagoak ziren, telebistaren eragina ez zen hain handia eta negatiboa, gure bizitzan ez zuten hainbeste presentziarik lehen mailako futbol gertakizunek eta orokorrean haurrek nozitzen zuten kutsadura askoz txikiagoa zen.

Ondorioz, guraso eta antolatzaileak ardura handia dugu txapelketaren inguruan sortzen diren arazoen eta gatazken kudeaketan eta irizpideak argi izan beharko ditugu. Gurasoen kobertura eta komunikazioa beharrezkoa izango da txapelketa honek martxa egokia izan dezan. Antolatzaile bezala ideia hauek ongi barneraturik ditugu eta nahiko genuke gurasoen aldetik ere beraiei dagokien interbentzio-komunikazio esparrua ongi betetzea. Gurasoen ardura izango da, taldeen osaketan ikuskatzaile lana egitea, euren artean zentzu onez hitz egitea eta haurrekin batera erabakiak adostea.

Ez dugu egokia ikusten lan hauek ikastolari edo txapelketaren arduradunei egoztea eta beraiek subjektu pasibo bihurtzea. Ez dugu zilegi ikusten eta gutxiago hezigarria. Bizitzaren beste hainbat esparrutan bezalaxe, sozializazio prozesuak konplexuak izaten dira baina bidean aurkitzen diren langa eta oztopo horiek norberak gainditu behar ditu eta horrek zentzu eta indar gehiago ematen dio garapen pertsonalari. Beraz, taldeak pixka bat naturaltasunez, eta lagun esparruak errespetatuz osatu behar lirateke. Hain trebeak ez diren lagunak aparte utzi gabe etab… baina hori guztia gurasoek kudeatu beharreko gaiak direla azpimarratu nahi dugu. Antolatzaileen lana izango da beste era batetako alderdiak zaintzea eta orokorrean, txapelketaren xede eta asmoak ongi adieraztea eta ikustaraztea.

Bide honetan, beraz, oinak lurrean izanda eta gure txikitasunean amets egiteko momentuak eta ilusioak sortzen jarraituko dugu eta bakar bakarrik Usurbilgo haurrentzat zuzendutako lehiaketa apal eta hezigarria jorratzen jarraituko dugu.

**Usurbil Futbol Taldea**

# 2007-2011 legegintzaldiak berea egin du

**Maiatzaren 22ko udal eta foru hauteskundeek utzi duten panorama berriaren ostean, ekainaren 11n osatuko da udalbatza berria, eta ekingo zaio datorren legegintzaldiari. Aurretik ordea, amaitu berri dena, azken lau urteok eman dutenaren errepasoa egiteko tartea hartu du NOAUA!-rentzat Xabier Mikel Errekondo alkateak. 2007-2011 legealdiari buruz egin dituen adierazpenen lehen zatia da honakoa. Bigarrena, arloz arlo legegintzaldian zehar egindakoaren berri jasoko duena, astebete barru, ekainaren 10ean kaleratuko dugu.**



XABIER MIKEL ERREKONDO, ALKATETZAKO BULEGOAN.

**NOAUA! Hauteskundeetako emaitzak zer modutan baloratzen dituzu?**

**Xabier Mikel Errekondo.** Herritarrek geure kudeaketa ulertu eta babestu dute. Eredu bat markatu dugu, eta Euskal Herrian ere erreferentzian bihurtu gara. Herriari begira eginiko kudeaketa, guztiz ausarta izan da. Emaitzekin gustura gaude.

**N. Milaka herritarrek ezin izan dute aurkeztu hauteskunde hauetara. Tartean, zuk zeuk?**

**X. M. E.** Milaka euskaldunen aurkezteko aukera zapuztu da. Milaka "proskrito" geratu gara, guztiz salagarria dena. Sorturen legeztapena hor dago, ez da argituko udazken edo negu partera arte. Horren aurrean, Bildurekin, urrats galanta eman da. Abertzaletasunetik elkarturik erantzun eta aurre egin zaio egoerari. Modu honetan, esparru sozial guztiak aukeratuak izan dira hauteskundeotan. Gizarte osoa dago ordezkatua.

**N. Bukatu da legegintzaldia. Zer sentsazioarekin amaitu duzu?**

**X. M. E.** Talde gaztea izan gara, berria, esperientzia gabea. Urteotan asko ikasi dugu, eta oso ongi moldatu gara. Usurbil hobe baten alde egiten saiatu gara. Harro nago erronkei heldu diegulako, kudeaketa lana zuzenean herritarrekin eta eragileekin egin dugulako eta emaitza paregabeak lortu ditugulako. Harro nago baita udal langileez ere. Luxu hori du Usurbilek, benetako altxorra da.

XABIER MIKEL ERREKONDO

"Herritarrak aintzat hartzen badira, erantzun egiten dutela argi dago"

**N. Parte hartzea izan da azken lau urteotako adierazgarri nagusia. Legegintzaldia amaituta, zeure ikuspegitik zer modutan baloratu dute herritarrek?**

**X. M. E.** Harro gaude egindakoaz. Gauzak egiteko eredu berritzailea markatu du. Benetako parte hartzea markatu da. Herritarrekin benetan eztabaidatu, erabakiak hartu eta erabakiok errespetatu dira. Horrek gauzak egiteko modua aldatu du. Agintzen dutenek nahi dutena egin dezaketenaren irudia irauli da. Herritarrak aintzat hartzen badira, erantzuten egiten dutela argi dago. Hori da gertatu dena eta aurrerantzean gertatuko dena.

**N. Atez ateko bilketaren inguruan burutu zenuten aurrekaririk gabeko parte hartze prozesua. Bi urte bete dira bilketa sistema martxan jarri zenetik, nola ikusten duzu gai hau?**

**X. M. E.** Balore piloa eman du Atez Ateko Bilketak. Benetako arazoari benetako irtenbidea aurkitu zaio. Erraustegia ez dela beharrezkoa erakutsi du. Sistemaren potentzialtasunaren adierazgarri, egun udalerrian hondakinak gaika biltzen dira ehuneko ehunean. Ia %90ekoa da birziklatze maila. Zer zentzu dute erraustegi edo zabortegiek?

"Baliabide piloa dituen Usurbil bat irudikatzen dut"

**NOAUA! Nolako Usurbil izatea nahi zenuke aurrera begira?**

**Xabier Mikel Errekondo.** Sentitzen duen Usurbil bat izatea nahi nuke. Gustura sentitzen duena. Kale bizitza duena, herri dinamikoa, gustura bizitzea elkarrekin, kalean. Usurbil bizi eta alai bat. Baliabide piloa dituen Usurbil bat irudikatzen dut. Lur emankorra da eta aterako dira proiektuak.

# Xabier Mikel Errekondo: “Herria sentitu, informatu eta parte hartzen jarrai dezatela”

**Lau urteotan alkate izan denari hitz batzuk eskatu dizkiogu, mezu bana, zerbait adieraztea, herritarrei, talde kide izan dituenei, oposizioko taldeei eta baita datorren ekainaren 11n burutuko den udalbatza berria osatzeko ekitaldian, lekukoa hartuko duten udal ordezkariei ere. Galdera bakarra eta bera da guztientzat: zer esan nahi zenieke…?**

**NOAUA! …herritarrei?**

**Xabier Mikel Errekondo.** Herria sentitu, informatu eta parte hartzen jarrai dezatela. Auzotasuna bultza dezatela, auzoetako identitate propioa landu dezatela. Zorionak eman nahi nizkieke bi arrazoiengatik nagusiki. Batetik proiektuak herritarrekin eraikitzea paregabea izan da. Lau urteotan balore asko ikasi ditugu. Zorionak baita hauteskundeetan ulertu dutelako nolako Usurbil nahi duten.

UDAL GOBERNU BERRIARI

“Egitasmoak elkarlanean aurrera atera ditzatela, eta oraingo filosofia bera aplika dezatela”

**N. …gobernu taldeko kideei?**

**X. M. E.** Eskerrak denei, bakoitzak bere lanbidearekin, presio eta zailtasun pertsonalei helduta, karga itzela izan arren, hor egon direlako. Zorionak, erronkei heldu eta programa bete dugulako. Bikain bat denei.

**N. …oposizioko kideei?**

**X. M. E.** Udaleko alderdi guztiok elkarlanean lan egin dezakegu, beti ere borondatea egonez gero. Zorionak hala ulertu dutelako alderdi gehienek. Zorionak PSE-EE-ko Amayari jarrera irekia erakusteagatik, baita Aralarreko kideei eta EAJ-PNV-ko kideari udalgintzaren alde lan egin dutelako.

Hamaikabati, onartezina dela gainerako udal taldeen aurka jotzen saiatu izana, ekarpenik egin gabe. Zigortu dute hauteskundeetan, Usurbilen, Gipuzkoan eta Euskal Herrian. Hilotz politikoak dira.



LASTER UTZIKO DITU UDALETXEKO LANAK.

**N. … datozenei?**

**X. M. E.** Gehiengo osoari jaramon askorik ez egiteko, egitasmoak elkarlanean aurrera atera ditzatela, eta oraingo filosofia bera aplika dezatela. Ziur nago hala izango dela. Izan dadila udalerria helburu. Herritarrak ere hor izango dituzte.

## “Langabeziak herritarrengan izan duen eragina da aipagarriena”

**NOAUA! Langabeziaren igoera, Udalak jasotako diru-laguntzetan beherakada… Krisialdi urteak izan dira. Zer nolako eragina izan du zuen eguneroko jardunean?**

**Xabier Mikel Errekondo.** Udalak zuzenean jasandakoa da gutxiena, nahiz aurrekontuari koska galanta egin dion. Langabeziak herritarrengan izan duen eragina da aipagarriena. Ez gaitu kontsolatzen krisialdia orokorra dela esateak, azken urteotan langabezia bikoiztu baita. Horri erantzuteko tresna handirik ez dugu halere; formakuntza eta praktikaldiekin herritarrak lan mundura bideratzea, erraztasunak ematea enpresa berriak kokatzeko eta langileak kontratatzerakoan, bertakoak lehenesten ahalegintzea.

Benetako eredu aldaketa ematea eskatzen du egoera honek. Ingemarren egoera lazgarria eman da. Ez dute errespetatu Komitea. Moduak ere ez dituzte zaindu. Zuzendaritzak enpresa txikiagotzearen aldeko apustu gogorra egin du. Besarkada bat eta gure babes osoa langileei. Datorren udalbatzari, honi eusteko eskaria egin nahi nioke.

# Aginagako txokoetan, izen ematea zabalik

**Kaxkoan eta Zubietan bezala, Aginagan ere udako txokoak antolatu dituzte San Praixku Guraso Elkarteko kideek. 4-12 urte arteko haur eta gaztetxoei zuzendutako ekimenean izen emateko epea zabalik dago, eta hala jarraituko du, ekainaren 17ra arte. Txokoak uztaila osoan zehar burutuko dira, hilaren 1etik 29ra, goizez eta ia lau orduz, 9:30-13:00 artean.**



TXOKOAK UZTAILAREN 1EAN HASI ETA 29RA BITARTE LUZATUKO DIRA.

Prezioetan ere bada alderik: bazkide direnek udako txokoetan hilabete erdiz parte hartzeagatik 30 euro ordaindu beharko dute, eta hilabete osoan egoteagatik 55 euro. Bazkide ez direnek, 60 euro eta 100 euro hurrenez hurren. Guraso elkartetik berri eman dutenez, “ordainketa egiteko erreziboa uztaileko lehen astean emango zaizue. Apuntatutakoek ekarri mesedez haurraren Osakidetzako txartelaren kopia lehen egunean”. Informazio gehiago telefono zenbaki hauetan jaso daiteke: 608 264 043 (Maite) edo 600 484 948 (Manuel).

## Aginagako kinto bazkaria

1963, 1964, 1965 eta 1966 urteetan jaiotako aginagarren kinto bazkaria antolatu dute. Otordua, ekainaren 18an ospatuko da, 14:00etan hasita Aginaga sagardotegian. Bazkaritara joateko izena ekainaren 15a baino lehen eman beharko da, Aginaga sagardotegian bertan jarriko den orrian. “Animatu denok bazkaritara!” luzatzen dute gonbita antolatzaileek.

# Zumarte Musika Eskolan matrikulatzeko garaia da

**Ostiral honetan amaituko da Zumarte Musika Eskolan matrikulazio epea. Beharrezko osagai nagusiak: gogoa eta 4 urte beteta izatea.**

## Matrikulazio-egunak

Maiatzak 30- Ekainak 3 bitarte.

Gutxieneko adina: 4 urte.

Goizez (egunero, astelehena ezik): 11:00-13:00.

Arratsaldez (egunero): 16:30-19:30.

## Ikasgaiak

Musika-Txokoa, musika mintzaira, helduentzako musika mintzaira, tronpeta, saxofoia, biolina, biola, perkusioa, klarinetea, abesbatza, eskusoinua, trikitixa, panderoa, pianoa, txistua, gitarra, flauta, organoa, talde instrumentalak.

## Informazio gehiago

Eskolan bertan (Kale Nagusia, 45).
943 371 594 / www.zumarte.org



MUSIKA INSTRUMENTU UGARI IKASTEKO AUKERA DAGO.









# Kultur alorreko Plan Estrategikoa datorren astean aurkeztuko da

**Iragarriak zeuden sei bileretatik azkena joan den astean burututa, amaitu da herriko kultur arloko eragileak bildu dituen parte hartze prozesua. Alor honetan aditu den Nicola Foronik gidaturiko ekimenean kultur elkarte, talde eta udal ordezkariak izan dira. Usurbilgo kulturaren iraganaz, orainaz eta geroaz jardun dute. Plan Estrategikoaren aurkezpena Artzabalen egingo da, ekainaren 8an.**



PARTE HARTZE PROZESUKO BILERAK ARTZABALEN EGIN DIRA AZKEN HILABETEOTAN.

Gogoeta estrategikoa, etorkizuneko lan ildoak adostea, kultur talde izatetik kultur herri izateko bidea egitea eta kultur eragileen kohesioa eta kultur subjektu izatea bultzatzea izan dira martxoan hasi eta joan den astera arte luzatu den parte hartze prozesuan jorratu dituzten gaiak.

> **ARTZABALEN**
>
> "Bilera irekia izango da. Herriko kultur arloko eragilez gain, herritarrak hitzordura gonbidatuak daude"

### Bilera irekia

Azken hilabeteotan burutu den lanketa ekainaren 8an burutuko den ekitaldian borobilduko da; datorren asteazkenean hain zuzen, Usurbilgo Kulturgintzako Plan Estrategikoa aurkeztuko baita Artzabalen, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Bilera irekia izango da, hau da, herriko kultur arloko eragileez gain, herritarrak hitzordura gonbidatuak daude.

### Potxoenea, uztailerako prest

Uztaileko bigarren asterako Potxoeneako lanak amaitzea aurreikusia dago, Andatza udal aldizkariak azken zenbakian berri eman duenez. Kultur arloko eragileen biltoki izan nahi du Potxoeneak, ekitaldiak antolatu, bilerak burutu edota materiala gordetzeko tokia. Hona hemen, solairuz solairu Potxoeneak eskainiko dituen aukerak:

-Behealdeko solairuan: Udalaren eta taldeen materiala gordeko da.

-Lur mailako solairuan: kultur zerbitzuko bulegoa eta harrera gela kokatuko dira. Gela handi bat ere egongo da, ikastaro, tailer edo bilerak egiteko.

-Lehen solairuan: taldeen azpiegitura-gela egongo da. Ordenagailua, fotokopiagailua, eta bilera tokia egongo dira, ekintzetarako beste bi gelekin batera.

-Bigarren solairuan: ekintzetarako hiru gela kokatuko dira, handi bat eta bi txiki.

### Jaietako Bertsopaper Lehiaketa, dagoeneko martxan

Baldintzak: usurbildarra izatea eta gai librean idaztea.

Lanak, ekainaren 29a baino lehen Udaletxera eman edo postaz bidali: XXXV. Bertsopaper Lehiaketa, Joxe Martin Sagardia Enparantza, 20170 Usurbil.

Lanek inoiz argitaratu gabeak izan beharko dute.

Gutxienez 8 bertso; gehienez 10.

Sariak: lehenak, 200 euro eta txapela. Bigarrenak, 150 euro. Hirugarrenak, 100 euro.

Lanak egilea nor den adieraz dezakeen daturik gabe aurkeztuko dira, izengoitiz.

Lanarekin batera kartazal itxi batean egilearen datu pertsonalak ipini.

Erabakia jaietako bertso saioan emango da aditzera.

JATETXEA - TABERNA
BELARTZA
943 37 60 82
Eguneroko menuak eta larunbatetan menu bereziak
- Plater konbinatuak, otartekoak...
- Pintxoak, razioak...
- Umeentzat menu bereziak
- Ateeden egunak: larunbat gaua eta igandea
DECATHLONen ONDOAN
Poligono Belartza • Gurutzegi kalea, 15 - A4 Pabiloia • Donostia

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K./ Nagusia 47, Behea A.
20170 USURBIL

BENTA TABERNA
HANBURGESAK
Oilasko erreak
Ogitartekoak
943 36 93 05

# Igandean, Ikastolaren Eguna

**Ekaina hasiera honetan burutuko diren Udarregikoek antolaturiko girotze ekitaldiak borobilduko ditu, igande honetan, hilaren 5ean ospatuko den Ikastola Egunak. Goizetik hasi eta arratsaldera arte, joko, ikuskizun edota herri bazkaria ospatuko dira, Udarregiko oinarri direnen parte hartzea protagonista dela; ikasle, irakasle eta gurasoena hain zuzen.**

Joan den astean burutu baziren ere lehen ekitaldiak, ekainaren 5ean ospatuko den Ikastola Egunari begirako hitzordu gehienak egunotan iragarriak daude. Ikasleak bertsotan edota kantuan arituko dira egunotan, baina honez gain bi ikuskizun ere programatu dituzte Udarregi ikastolakoek; Korri, Xalto eta Brinko pailazoen ikuskizuna, baita "Baginaren bakarrizketak" izeneko antzezlana ere larunbaterako.

**PAILAZOEN BISITA**

"Ostiral honetan, Korri, Xalto eta Brinko pailazoak arituko dira frontoian, arratsaldeko 16:30ean"

Ikastola Eguna aipatu moduan igandean ospatuko da. Goizean zehar ikasleen lanen erakusketak eta jokoak tartekatuko dira egitarauan, eguerdian HHkoen ikuskizuna eta eguna borobiltzeko herri bazkaria. Frontoian burutuko den otordurako txartelak erosteko epea maiatzaren 31n itxi zuten. Hona hemen oraindik ospatzeke dagoen ekitaldi sorta:

### Ekainak 1, asteazkena

18:30 Udarregi ikastolako HH5 eta LH5 mailetako ikasleen kantaldia Sutegiko auditorioan, senideei zuzendua. Oharra: sarrera mugatua, lekuarengatik.



BAZKARIA FRONTOIAN IZANGO DA.

### Ekainak 3, ostirala

12:30-14:30 DBHkoen bertso jaialdia ikastolako erdiko aretoan.

16:30 Korri, Xalto eta Brinko pailazoak, "Entresaka" ikuskizunarekin frontoian.

18:00 Txokolate jana eta buruhandiak frontoian.

### Ekainak 4, larunbata

10:00 Haur eta gurasoek Haur Eskolako patioa margotuko dute.

22:00 "Baginaren bakarrizketak" antzezlana Sutegin. Antzezleak: Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garai. Egilea: Txalo Taldea.

### Ekainak 5, igandea

9:00 Esnadeia.

9:00-11:30 LH eta DBHko ikasleen jokoak.

10:00-13:30 LH eta DBHko ikasleen eskulanen eta teknologiaren erakusketa ikastolan eta Haur Eskolako haurren erakusketa Oiardo Kiroldegiko harrera tokian.

12:00 HHko haurren jaialdia Oiardo kiroldegian: "Zuztarregiko frutak".

14:00 Herri bazkaria frontoian. Bazkal ondorengo girotzea DBHko ikasleen eta gurasoen eskutik.

Antolatzailea: Udarregi ikastola.

## "Baginaren bakarrizketak", larunbat gauez Sutegin

Eva Ensler feminista amerikarrak egindako elkarrizketa batzuen emaitza da antzezlan hau. Horretarako, adin, arraza, maila kultural eta sozial ezberdinetatik datozen 200dik gora emakumeri egin zien elkarrizketa. Obraren helburua, emakumeak euren sexualitatearekiko sentitu eta sentitzen dituzten erru eta lotsa sentipenetatik libre uztea da. Umorea, samurtasuna eta tarteka izua adieraziz, bi aktorek ematen diete ahotsa istorio sare honetako emakume protagonistei, eta beraiek bezala, barrearen ondoan poesia eta probokazioa jartzen dute.

Larunbat honetan, 22:00etan Sutegin. Sarrera: doan.



LARUNBAT HONETAN, 22:00ETAN SUTEGIN.

# "Zustarregiko frutak" jaialdia igandean, Haur Hezkuntzako ikasle eta irakasleen eskutik

**Frutak izango dira aurtengo Haur Hezkuntzako ikasle eta irakasleek Oiardo Kiroldegian eskainiko duten ikuskizuneko protagonistak. Igandean eguerdiko 12:00etan hasiko da "Zustarregiko frutak" izeneko emanaldi koloretsua.**

## Parte hartzaileak

HH3: mandarinak/laranjak, udareak, aranak (gorriak, horiak, berdeak), marrubiak…

HH4: mahatsak.

HH5: gereziak, sagarrak.

HH5 piñak, Platanoak.

Irakasleak: lurrezko ontzia.

## Istorioa

"Ba omen zen lurrezko ontzi triste bat, isipu handi bat eta pintura pote handi bat hartuta ibiltzen zena. Berak kolore bizia maite zuen, pareta txuri bat ikusi orduko, pareta margotzen zuen. Kolore bizikoak zorionekoak dira, pentsatzen zuen. Begira, ni, simaurraren kolorekoa naiz, marroi-marroia eta triste-tristea.

Etxerako bidean Zustarregiko zelaian zuhaitz asko ikusi zituen, zuhaitz ederrak, sasi ederrak eta mahasti ederrak eta koloretsuak, fruitu horiekin, fruitu gorriekin, berdeekin, laranjekin…. Denak pozik eta zoriontsu, eta bera, makur-makur, triste-triste eta gainera, bakarrik.

Zer duzu? Esan zioten fruitu guztiak batera. Triste nago, zuek bezala nahi dut izan, koloretsua, polit polita eta ez nik daukadan kolorezkoa, simaurraren parekoa.

Ez ezazu honelakorik esan!! Zu, lurrez eginda zaude eta lurrari eta simaurrari esker gu osasuntsuak, ederrak eta koloretsuak izatea lortu duzue. Berehala eroriko gara zuhaitzetatik eta zurekin bizitzera joango gara. Garaia iritsi arte zain egon behar duzu eta beti izango gaituzu zurekin, garaian, garaiko kolorezkoak izango gaituzu.

Eta hala egin zuen, egunero, Zuztarregi zelaian geratzen zen frutei begira, zain".



EGUERDIKO 12:00ETAN, OIARDO KIROLDEGIAN.

# Eskola publikoari buruzko bilera, guraso batzuk sustatuta

**2009-2010 ikasturtetik hona, Usurbilgo guraso talde batek eskola publikoaren aldarrikapena jarri du abian. Geroztik, udal ordezkarien eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Lurralde Ordezkariaren arteko hainbat bilera burutu dira. Egun hauetan, inkesta bat banatzen ari dira gurasoen artean. Informazio gehiago eskura daiteke honako helbidera idatziz: epusurbil@gmail.com**

Guraso talde honek 100 sinadura bildu ditu eta duela gutxi bilera bat egin zuten Sutegin. Bilera honetan, hainbat guraso, Hezkuntza Saileko ordezkaria eta amaitzear den legealdiko udal ordezkaririk ere izan zen. Eskola publikoaren beharra zein neurritarainokoa den jakin asmoz, inkesta bat jarri dute martxan. Galdetegi moduko bat erantzun behar dute gurasoek, funtsean, balizko eskola publikoaren ezarpenaren alde dauden ala ez jakiteko.



BILERA DUELA ASTEBETE EGIN ZEN SUTEGIN.





# Herrigintza, herritarren ilusio eta interes gune

**Bertsogintza mundutik konpromiso kolektiboetara egin zuen jauzia ahotan hartuta azken urteotako bere bizi esperientzia azaldu zuen Jon Sarasuak, joan den astean Zubietako Kaxkapen eskaini zuen hitzaldian. Bertsolaritza utzi eta berak zioen moduan, isiltasun aroan murgilduta herrigintzan burutu duen ibilbide oparoari buruz esandakoek interesa piztu zuten Zubieta Lantzenek antolatutako ekitaldira hurbildu ziren herritarren artean. "Ertzeko zatiak" argitaratua duen liburuan jaso daiteke bere esperientziaren inguruko kontu gehiago.**



JON SARASUAREN HITZALDIA ADI-ADI JARRAITU ZUTEN.

Herrigintza lau zutabe nagusiren gainean oinarritzea defendatzen du Sarasuak. Euskaltasunean lehenik, XXI. mende honetan zehar ere gogorarazten zuenez, "euskalduna izateak ahalegina eskatuko du" eta. Auto eraketa edo kooperatibagintza da herrigintzak behar lukeen bigarren ezaugarria, "pertsona bakoitzaren erabakitzeko gaitasunean" oinarritua, agintzen duten botereak gainetik egon gabe, gaineratzen zuenez.

## BIZITZA ESTILOAZ

Bizitza estilo pertsonaletik abiatu eta kolektibo aldera jotzen duten prozesu humanizatzaileetan sinesten du

### Euskal Herriak erreferentzia gutxi

Herrigintza sostengatuko luketen beste bi ezaugarriak, Sarasuaren ikuspegitik, "gizakiak ahazteko tentazioa izan ohi duen" elkartasun eta iraunkortasun kontzeptuak lirateke. Azken honen inguruan gogorarazten zuenez, "ezin gara egungo erritmoan bizi, ez du ematen denontzat. Adituek diotenari erreferentzia eginez, "petrolio merkearen aroaren bukaera" dela dio Sarasuak, eta urte gutxi barru, guztiok gai honi buruz hitz egingo dugula iragartzen du. Ordutik aurrera, bere esanetan, "mundua ezberdina izaten hasiko da".

Euskaltasuna, auto eraketa, elkartasun eta iraunkortasun kontzeptuekin, bere ikuspegitik Euskal Herria non dagoen ere kokatu nahi izan zuen Sarasuak. Euskaltasun eta auto eraketa alorretan zioenez, "ondo kokatua dago, oso posizio berezian, herri txiki eta sufritua izan arren". Herri ekimenen esperientzia gutxi dela zioen nazioartean, Euskal Herriari baliagarri zaizkion mundu mailako erreferente gutxi daudela irizten zion. Aldiz aipatzen zuenez, "badugu zer sortua herri txikientzat". Halere, geure kulturaren interes gune propioan konfiantza handiagoa behar genukeela zioen.

### "Iparra marraztea hobe da"

Lau osagaiokin batera, herrigintzan parte hartu nahi duenaren profila ere, aurrera begira nolakoa izan daitekeen marraztu zuen Jon Sarasuak Zubietako hitzaldian. Borondate lan horrek, bere esanetan, "ez du sakrifizio bat izan behar, bizitzeko modu interesgarriago bat baizik". Nekea sortu sor dezakeena, baina batez ere gozagarri suertatuko zaiona norberari. Ametsak errealitate bilakatzeko, erreferente baten beharra dagoela zioen Sarasuak, bere esanetan, "iparra marraztea hobe da". Eta norabidea finkatu ostean, egitasmo zehatzekin bidea jorratzea. Beste gizarte eredu baten beharra aldarrikatu zuen. Bizitza estilo pertsonaletik abiatu eta kolektibo aldera jotzen duten prozesu humanizatzaileetan sinesten du Sarasuak.

### Debagoieneko esperientzia

Sarasuak defendatzen duen auto eraketaren eta herrigintzaren gertuko adibide bat ekarri nahi izan zuen hitzaldira. Bera ere kide izan eta Arrasate eta inguruetan burutu den prozesua hain zuzen. Kooperatiba, hezkuntza edota euskalgintza alorretako herritarrak bildu eta hamaika talde osatzera ailegatu dira bertan, arloka proiektu zehatzak bideratzeko. Adibide moduan aipatu zituen, euskalgintza, kulturgintza, gazteen formazio soziopolitikoa, jubilazio aktiboa, etxebizitza alternatibak… Gaiotan gauzatzen joan diren egitasmoak.





# Ekitaldi nazionala eta kontzertu gaua ekainaren 11n, "Gazte1+ez" plataformak deituta

**Azken urteotan gazteen aurka burutu diren atxiloketa eta kartzelaratze gehiago onartzeko prest ez daudela aldarrikatzen du, "Gazte1+ez!" martxoan jendaurrean aurkeztu zen plataformak. Euskal Herriko gune desberdinetako gazteez osaturiko bilguneak ekitaldi nazionala eta kontzertu gaua antolatu ditu Usurbilen, ekainaren 11rako. Esne Beltza, Kaotiko, Vendeta, Ze esatek! eta Betagarri taldeek emanaldia eskainiko dute frontoian.**



ESNE BELTZA TALDEKOAK, ASPALDIKO ARGAZKI BATEAN.

Prentsaurrekoan gogorarazten zutenez, "2007ko urtarrilean Auzitegi Gorenak Jarrai-Haika-Segi gazte antolakundeak terrorista izendatu zituenez geroztik 230 gaztetik gora izan dira atxilotuak eta 140 espetxeratuak".

**EKAINAREN 11N**

Esne Beltza, Kaotiko, Vendeta, Ze Esatek! eta Betagarri arituko dira frontoian

## 100 gazte, atxilotuak

Gaineratzen dutenez, azken bi urteotan "100 gazte izan dira atxilotuak, 90 espetxeratuak eta hauetatik 64k gutxienez tortura edo tratu txarrak salatu dituzte epailearen aurrean". Antzeko beste egoerarik onartzeko prest ez daudela eta, sortua dute "Gazte bat gehio ez!" izeneko plataforma.

Babes harreman dinamika abiarazi eta euren esanetan, "jendarte zabaleko eragile soziopolitiko, gazte erakunde, sindikatu, herri mugimendu, norbanako, pentsalari, instituzio… eta abarrekin elkartzeko asmoa" dute.

## Arratsaldetik, ekitaldiak

Aipatu plataformak hain zuzen, ekainaren 11rako Usurbilen ekitaldi nazionala eta kontzertu gaua antolatu ditu. Egunotan, Facebook bidez iragartzen ari dira deialdia. Bi hitzordu nagusi deitu dituzte; lehena arratsaldeko 18:30etarako, ekitaldi nazionala burutuko baitu "Gazte 1+ez!" plataformak. Ondoren, 21:30etatik aurrera kontzertu gaua ospatuko da. Bost musika talde ezagun igoko dira frontoiko oholtza gainera: Esne Beltza, Kaotiko, Vendeta, Ze esatek! eta Betagarri.

## Txosnak ipiniko dituzte

Bitartean, txosnak ere egongo direla iragartzen ari dira antolatzaileak, baita beraz, jan edana ere.

Sarrerak aldez aurretik 8 eurotan eskuratu ahal izango dira. Egunean bertan, 12 euroren truke.









# Argizka Balentziaga, Trainerilla Txapelketan irabazle

**Getariarra sortzez baina Usurbilen bizi den Argizka Balentziaga patroi duen Getaria-Tolosak irabazi du emakumezkoen Euskadiko trainerilla txapelketa. 11 segunduko tartea atera zion Pasai Donibaneri eta 17 Zumaiari, pasa den igandean Plentzian jokatu zuten proban.**


ARGIZKA BALENTZIAGA, BISERAREKIN, BANDERA JASOTZEKO UNEAN.

Hona hemen emaitzak:
1- Getaria-Tolosa: 15:33:13.
2- Pasai Donibane: 15:44:23.
3- Zumaia: 15:50:23.
4- Lutxana: 16:07:86.

Euskadiko Txapelketaren aurretik, Gipuzkoako Txapeketa irabazi zuten maiatzaren 18an. Etxean bertan, Getarian jokatu zen lehian sailkapen buruan amaitu zuten:
1- Getaria-Tolosa: 10:51:79.
2- Zumaia: 10:57:64.
3- Pasai Donibane: 11:01:38.
4- Orio: 11:23:80.

## Itoitz Rodriguez, 1.000 metrotan Euskadiko txapeldun

Udarregi ikastolako 14 urteko ikasle Itoitz Rodriguez Errondosorok 1.000 metro eta 500 metrotako probetan Gipuzkoako Txapelketa irabazi ondoren, asteburuan Gasteizen ospatu den Euskadiko Txapelketan ere garaile amaitu du. Bigarren sailkatuari bost segunduko tartea atera zion.

Beste usurbildar gazte bat, Irati Larrañaga Euskadiko Selekzioarekin Lugora doa datorren asteburuan, jauzi hirukoitzeko proban parte hartzera.



## Irati Gabellanes, bigarren Gipuzkoako Txapelketan

Maiatzaren 21ean, soinketa erritmikoko Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen Ordiziako kiroldegian. Alebin mailan, Irati Gabellanes bigarren geratu zen. Zorionak!


IRATI GABELLANES.

## Larunbatean, Herri Arteko Pilota Txapelketako partidak

Oiartzun izango da aurkaria, eta ez nolanahikoa. Joaneko partidak jokatu ziren aurreko larunbatean eta 2-1 aurreratu zen Oiartzun. Kadeteetan 22-2 irabazi zuten oiartzuarrek. Jubeniletan ere, berdin: 22-1 Oiartzunen alde. Nagusietan, ordea, 18-22 gailendu ziren usurbildarrak. Bueltako partidak larunbat arratsaldean jokatuko dira, 19:00etatik aurrera Usurbilgo frontoian.







# Asteburuan jokatuko da Buruntzaldeko Areto Futbol Txapelketa

**Buruntzaldeko lau udalerri aurrez aurre jarriko ditu, lehen aldiz Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalek ekainaren 3 eta 4rako antolatu duten areto futbol txapelketak. Asteburuan jokatuko den kirol ekimena asteartean aurkeztu zuten prentsaurrekoan. Txapelketa azkarra izango da, ostiralean hasi eta larunbatean amaituko dena. Partiden jokalekua Andoaingo Allurralde kiroldegian kokatuko da.**

Kirol alorreko ekimen berria antolatu dute Buruntzaldeko udalek asteburu honetarako. Estreinakoz, bailara mailako areto futbol txapelketa ospatuko da ekainaren 3an eta 4an.

### Makax taldea

Udalerri bakoitzeko ordezkari banak parte hartuko du lehian; hau da, Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo ordezkariek. Guztira beraz, lau lehiakide izango dira, kasuan kasuko herri mailan antolatutako areto futbol txapelketa irabazi dutenak.



USURBILGO UDALETXEAN EGIN ZEN AURKEZPENA.

Usurbil halere, federatu mailan dagoen talde bakarrak ordezkatuko du; Makax taldeak.

Txapelketa azkarra izango da, Andoaingo Allurralde kiroldegian jokatuko dena.

Arauak eta epaileak Areto Futboleko federazioarenak izango dira. Neurketen hitzorduak honakoak izango dira:

**Ekainak 3, ostirala**
20:30 Andoain-Lasarte-Oria
21:30 Urnieta-Usurbilgo Makax.

**Ekainak 4, larunbata**
19:00 Finala.

## Lur Ibarra txapeldunorde, "El Conquistador" saioan

Euskal Telebistako "El Conquistador del Fin del Mundo" lehiaketako txapelduna Nakor Markez zarauztarra izan zen. Lur Ibarra usurbildarra gertu ibili zen, baina azkenean txapeldunorde amaitu zuen, igande gauez Euskal Telebistak emititu zuen finalean ikusi ahal izan zenez. Lorpena berarekin ez dagoen lagun min bati eskaini nahi izan zion Lurrek.



LUR IBARRA, TELEBISTA SAIOKO UNE BATEAN.

### Zegama-Aizkorri mendi maratoia

Sailkapenari begira, bi usurbildar topatu ditugu. Koldo Lertxundi 139. postuan helmugaratu zen, 5:24:31 denbora osatu ondoren. Josu Oiarzabal 155garrena izan zen, 5:32:35 denborarekin.

## Paleta Goma Txapelketa, datozen partidak

**Ekainak 5 igandea, Aginagan arratsaldeko 17:30ean**

| | |
|---|---|
| Iban Arruti–Manuel Galarraga | Imanol Esnaola–Haritz Zubiaur |
| Unai Loidi–Josu Errekondo | Oidui Usabiaga–Mikel Ibarreta |
| Leko–Haritz Harreguy | Igor Alkorta–Eneko Arregi |
| Josu Arruti–Jon Olaizola | Enrike Huizi–Xabier Murua |

**Ekainak 7 asteartea, Usurbilen arratsaldeko 19:00etan**

| | |
|---|---|
| Dolo Errasti–Ane Manzisidor | Nagore Leoz–Arantxa Unanue |
| Nerea Zinkunegi–Idoia Laguardia | Ane Bailo–Leire Furundarena |

**Ekainak 9 osteguna, Usurbilen arratsaldeko 19:00etan**

| | |
|---|---|
| Garazi Jauregi–Ainhoa Azpiroz | Ana Errasti–Rosa Uribe |
| Zaloa Leoz–Plas Lorenzo | Nekane Aldunzin–Amaia Atxega |

## Pilota Txapelketa

**EKAINAK 4 LARUNBATA USURBILEN, 11:00ETAN**

JUBENILAK
Ariztimuño-Beola / Azketa-Atxa
(Bera) (Zegama)

NAGUSIAK
Mikel-Perez / Alegria-Iriarte
(Zaramaga) (Leitza)

**EKAINAK 5 IGANDEA AGINAGAN, 11:00ETAN**

JUBENILAK
Etxenike-Garcia / Zestau-Mina
(Hernani) (Huarte)

NAGUSIAK
Arrieta-Ansotegi / Jauregi-Berroeta
(Markina) (Gasteiz)

# "Janari ekologikoa jaten dugu, gure inguruko baratzetakoa"

**Kaixo lagunak! Hemen gatoz gaur ere gure abenturak kontatzera. Jakingo duzuenez, Haur Eskolan janari ekologikoa jaten dugu, baina ba al dakizue nondik datorren? Gure inguruko baratzetatik!**



IRAKASLEAK ETA IKASLEAK, ESKOLA ONDOKO BARATZEAN.

Aurreko astean, tximeletok eta txerriok Haur Eskola ondoko baratzera joan ginen eta koalak berriz, Kalezarreko oiloen ondoan dagoen baratzera. Kanguruak ere laster joango dira e! Lehendabizi Sindikatutik pasatzen gara haziak eta letxuga txikiak erostera, eta ondoren baratzera! Bertan, gure aitatxo eta aitona batek, lur zatitxo bana prestaturik zuten eta baita atxurra ere. Zein handia zen!

Lur zatira iristen ari ginela, ai ama! Beraiek letxugak, tomate eta perrexil denak zapaldu genituen. Lasai aitona eta aitatxo, berriro ere landatuko ditugu eta!

Hori gertatu ondoren guztiok txintxo-txintxo entzun genituen aitonaren eta aitatxoren azalpenak. Aurrena, bere barazki batzuk aldatu genituen. Beraiek bi zulotxo egin eta guk letxugak jarri, gero beste bi zulotxo egin eta tomate landareak sartu. Honela lortu genuen gure haziak landatzen uztea.

Atxurrarekin arrasto luze batzuk egin eta haziak botatzen hasi ginen denok txandaka. Aurrena letxuga haziak bota, ondoren kalabazina eta azkenik azenarioarena. Esan zigutenez, haziak ez dira pilan bota behar, sakabanatuak baizik, baina zein zaila den hazi txikiak, gure eskutxoetatik pilatuta irteten diren horiek, zabalean botatzea. Ondoren arrastoak tapatu eta jarraian dena ureztatu genuen, hori bai polita!

Hemendik aurrera goiz batzuetan ureztatzera joango gara eta honela ikusiko dugu guk landatutako barazki horien hazte prozesua. Paseatzen zabiltzatela, txerri, tximeleta, koala edota kanguro irudiak barazki tartean ikusiz gero… hortxe gure baratza!

Ea zerbait ateratzen den eta probatzeko aukera dugun! Gero arte letxuga eta tomate! A! ahaztu gabe! Eskerrik asko Olatz, Andoni eta aitona Pedro Mari zuen laguntzagatik!

**2-3 urteko Haur Eskolako haurrak.**

# Oria ibaiko hondakinak biltzeko hitzordua jarri dute

Aurreko urteen ildotik, ekainaren 11n Oria ibaia hondakinez garbitzeko ekimena antolatu du Puntapax Kanoe Kirol Elkarteak. Goizeko 10:00etan finkatu dute hitzordua, Zubietako Aliriko zubian. Antolakuntzatik berri eman dutenez, Oria ibaian zehar bizpahiru orduz piraguatan bilketa lanak burutzea litzateke asmoa. Ez da ekimen hau burutzen duten lehen aldia eta diotenez, denetarik aurkitu izan dute, plastikozko hondakinak bereziki. Informazio gehiago telefono zenbaki honetan: 660 395 094.



EKAINAREN 11N ELKARTUKO DIRA, 10:00ETAN ALIRIKO ZUBIAN.

## Usurbil FT-ren oharra

Usurbil Cup antolatu duten Usurbil FT-ko kideek honako oharra helarazi nahi diete gaztetxoei: "Herri txikia da Usurbil. Hori dela eta elkarte zein talde ezberdinen arteko elkarlana ezinbestekoa dugu, ekintza guztiak aurrera ateratzeko. Horregatik, Usurbil FTk, herriko umeei dei egiten die Santixabeletako haur danborradan parte hartzera. Badakigu futbola gustuko dutela eta Usurbil Cup txapelketak bete betean harrapatzen dituela danborradako entseguak. Hori dela eta, gure aldetik ahalegina egingo dugu, ahal den neurrian, partiduak entseguen ordutegi berdinean ez jartzeko. Beraz, animatu zaitezte eta astindu gogor danborrak!".

## Agenda!!

### Ekainak 3 ostirala

**- Korri, Xalto eta Brinko pailazoak,** 16:30ean frontoian.

### Ekainak 4 larunbata

**- "Baginaren bakarrizketak",** 22:00etan Sutegin.

### Ekainak 5 igandea

**- Udarregi ikastolaren eguna.** Egun osoz (ikus 10. orrialdea).

### Goardiako farmaziak

**Ekainak 2, osteguna**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Ekainak 3, ostirala**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Ekainak 4, larunbata**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Ekainak 5, igandea**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Ekainak 6, astelehena**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Ekainak 7, asteartea**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Ekainak 8, asteazkena**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Ekainak 9, osteguna**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Ekainak 10, ostirala**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Ekainak 11, larunbata**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Ekainak 12, igandea**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

** Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

*GOARDIAKO FARMAZIA,GAUEZ*
*Aizpurua, Latxunbe Berri, 11, Hernani*
*Telefono zenbakia: 943 336 077.*

# Haur Eskolan, elikadura aztergai

**Elikadurak gure bizitzetako lehen urteetan duen garrantziaz jardungo dute Usurbiltzen taldeak eta Haur Eskolako gurasoek ekainaren 7 eta 9rako Artzabalen antolatu dituzten hitzaldietan. Elikadura ekologikoa eta Haur Eskolako jangela eredua ahotan hartuko dituzte alor honetako hiru adituk.**

Bi hitzaldiak datorren astean burutuko dira Artzabalen. Hona hemen, bi ekitaldiotarako hitzorduak:

### Ekainak 7, asteartea

**18:30** Hitzaldia Artzabalen: "Elikadura ekologikoa, dieta eta osasuna". Hizlaria: Egoitz Garro, elikadura orientatzailea.



HITZALDIAK ARTZABALEN IZANGO DIRA.

### Ekainak 9, osteguna

**18:30** Hitzaldia Artzabalen: "Zer jaten dute gure haurrek?". Hizlariak: Sabrina Pato eta Aloña Gonzalez "Ekolapikoak" egitasmoko kideak.

**Antolatzaileak:** Usurbiltzen eta Haur Eskolako gurasoak.

## Larunbat honetan Donostian elkartzeko deia

Erronka egina diete herritarrei Donostiako Zubidon Zero Zabor taldekoek. Larunbat honetan, ekainaren 4an, 3.000 lagun bildu nahi dituzte: arratsaldeko 17:00etan Donostiako Alderdi Ederren.

Hauxe Facebook bidez zabaltzen ari diren mezua; "3.000 pertsona lortzen baditugu hitzordu honetara joatea, ekainak 4 baino lehen, jaialdi erraldoia egingo dugu, Odon eta bere "kamarillak" Udalean jarrai ez dezaten. Zubietako erraustegia eraiki ez dadin eta Donostia Zero Zabor hiria izan dadin! Zabaldu!"

## Mariskada opari



Axun Sagardiari tokatu zitzaion mariskada herri arteko pilota txapelketan egin zen zozketan, Usurbil-Alegia jokatu zeneko partidan. Pilota Elkartekoek, partehartzaile denei eskerrak eman nahi dizkiete.

KALITATEKO EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO
ALKORTA
AUTOZERBITZUA
Frutak
Barazkiak
Etxeko produktuak
Izoztuak
Beheko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4 20170
Tlf 943 37 08 78 USURBIL

## Etxebizitza

- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 60 metro karratuko etxea salgai Santuenea 26an. Sukalde handia, egon gela, 2 logela, komuna, 2 balkoi eta 3 leiho, dena kanpokaldera ematen duena. Ganbara eta 12 metro koadro trasteroa. 185.000 euro. 666539284
- 85metro karratuko etxebizitza bat alokatzen dut Usurbilgo kaxkoan. 3 gela, bi terraza eta trasteroa. Bermea eskatuko da. 616064059 (gauetan deitu).
- Usurbilen alokairuan dagoen pisu baten bila nabil. Idoia 695733535.
- Kaxkoan pisua alokatzen da. 2 gela, sukaldea, sala eta komona.Tlf: 670070562
- Santuenean etxe bat alokatzen da. 679 366 415.
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan, 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatuta. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. Tlf: 686969112
- Kaxkoan etxebizitza salgai. Hiru logeladuna, bi komun eta trasteroarekin. 685 731 792.
- 90 metro karratuko pisu bat daukagu salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, bi komun eta 7 metro karratuko ganbara bat.Oso eguzkitsua eta bizitzen jartzeko moduan dago. 699680265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu).
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 130.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
-Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
-Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat salgai Alfaron. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 km-ra. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna, portxea. 675702428 (gauez).
- Muna Lurra kalean etxe bat alokatzen da. Eguzkitsua eta berritua. 637225620.
-95metro etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 141.000 euro. 943 36 98 35 (21:00etatik aurrera).
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

## Salerosketak / garajeak

-Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. 669645585 edo 943365191.
- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150 sagarrondorekin. Deitu: 943 361 463
- Nissan Almera salgai. Matrikula: SS-BG. Prezioa: 1.500, IAT (ITV) pasea du. 615 798 479.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
-33m karratuko lokal bat alokatzen dut Atxegalden 280 eurotan. Sarrera egokia. 943373414
-50cc-ko motorra salgai. 2 urte, oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

## Lanpostuak

### Lan-eskaerak

-Haur bat zaintzeko eta etxekolanak egiteko neska euskaldun baten bila gabiltza. 646130387.
-Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabiltza. Banaketa afaritarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabiltza. Nahiago dugu Usurbilgoa eta euskalduna izatea. Interesatuak deitu 676355635 telefonora.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Hala bada, pasa zaitez Udarregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

### Lan-eskaintzak

- Neska esperientziduna eta ikasketa titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat . 663294970
- Aleman eta Ingeles natiboak, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendari lanetan arituko nintzateke goizez. 620 093 697.
- LHko irakaslea udan klase partikularrak emateko prest. 658 706 443.
- Garbiketa lanetan edo dendari moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Herriko emakume euskaldun bat eskaintzen da pertsona helduak eta gaixoak zaintzeko. Ordutegi malgua (egunez zein gauez) eta prezio ekonomikoak. 687348223.
-Emakume esperientziduna eta erreferentziekin eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123
-Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrak ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltseritza lanetan aritzeko, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziduna. 658107757
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
-Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
-Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
-Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
-Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
-Etxeko lanak egiteko neska bat prest. 630 768 325.
-Pintore/burdinlari gisa lan egiteko prest. 654 217 752.
-Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. LH-tik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.

## Bestelakoak / Galdutakoak

- Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Katakume bat hartuko nuke gustora baserrirako. 666539284
- Masajeak ematen diut: reflexologia, siatsu, masaje orokorra... 943 365 079 telefono zenbakira deitu eta utzi zure mezua.
- Bi haur dituen familia gara eta Asturias edo Cantabrian kanpin batean dagoen mobilhome edo karabana alokatuko genuke abuzturako. 675 007 048 (Garbiñe).
- Usurbil eta inguruetan, belardiak behar dira, belarra jasotzeko. Tel: 607457004. Dani
- Umea kotxean eramateko ziurtasun aulkia (10 kilotik gorakoa eta etzaten dena) erosiko nuke. Tlf: 658721427
- Kamera digital bat desagertu zitzaigun liburutegian, martxoaren 11n. Asko eskertuko da bueltatzea. 686 554 145 (Ana).
- Sukaldari bat eskaintzen da famili nahiz lagun arteko bazkariak antolatzeko eta prestatzeko etxeetan, elkarte gastronomikoetan...... 670 410 273.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. Interesatuta bazaude: 669645585 / 943365191.
- 11 husky siberiar txuri oparitzeko. 649906678.
- Andatza mendian (Puelako bidean) mendiko txamarra mutilarena, urdin iluna, galdu dut. 657702038.
- Hemengo intxaurrak salgai. 943 67 11 60.
- Su-egurra salgai modu onean. 689937338 Jesus Mari.
- Wii kontsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiak kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Garantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113



**Zorionak Naroa!**
Maiatzaren 29an ospatu zenituen zure 3 urteak ta muxu handi handi bat bidali nahi dizugu Aginagako Herri eskolako denen partez!



**Zorionak Sorgintxo!**
Ekainaren 6an sei urte beteko dituzu eta elkarrekin ospatuko dugu merendolan. Muxu handi bat Unax, Oihan, Anje eta Aratz-en partetik.

## Hildakoak



**Serapio Tardio Ramos**
73 urterekin hil zen maiatzaren11n, Usurbilen

Oharrak, zorion agurrak, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 12:00etan.
E-posta: erredakzioa@noaua.com
** Jaiotzen datuak Usurbilgo Bake Epaitegian bakarrik hartzen ditugu*



euskararen bideak
BARNETEGIAK
EUSKARA ESKOLAK
EUSKARAZ BIZITZEKO
AUKERA
FAMILIA BARNETEGIAK
SEME-ALABEKIN
EUSKARAN MURGILTZEKO
AUKERA
IBILTARIAK
BIZIKLETAZ
OINEZ
EUSKALTEGIAK
5, 4 ETA 3 ORDUKO
IKASTAROAK. E-USKALTEGIA,
IKASTAROAK ON-LINE
JARDUERA BARNETEGIAK
SUKALDARITZA, BERTSOAK,
MARRAZKIGINTZA,
ABENTURA, ANTZERKIA,
IPUINAK
usurbil
ETUMETA EUSKALTEGIA
Kale Nagusia, 45 behea. 20170 USURBIL
- IKASTARO TRINKOAK
- (uztaila-irailean 100 orduko ikastaroak)
- MAILA GUZTIETAKO IKASTAROAK
- 1, 2 eta 3. (E.G.A) mailako azterketa prestaketak
943 37 20 01 usurbil@aek.org

# Edertu zaitez!
















